

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Enpresa handien estrategietako bat izen ona lortzeko gehienetan bezeroekiko zuzeneko harremana mantentzea da. Hala nola, arazoren bat izanez gero pertsona fisiko batek konpontzen saiatzea, beraiekin hitz egitea...

Gaur egun kontaktu hori izateko hainbat kanal daude, pertsona bakoitzaren beharretara egokitzeko, adibidez, denda fisikoa, telefonoa, web-orria...

Gure bezeroak emakumeak izan behar dira, gure produktua beraiei bakarrik zuzenduta baitago ondorioz erraza da beraiekin tratua izatea, denen interesak komunak direlako. Baina emakumeak gai hauetaz hitz egin edo arazoren bat izanez gero kontaktuan jartzeko aukera izatean agian ez dira eroso sentitzen gizon batekin hitz egin behar badute. Horregatik, aukera emango dugu kontaktu zerbitzu zehatz bat izateko.

Dena kontuan izanda, gure bezeroekiko kontaktuan jartzeko ni modu desberdin izango ditugu: alde batetik harreman zuzena, hau da, zuzeneko tratua, edozein arazo edo gai konpontzeko eta ulertzeko erraza izateko eta bestetik webgunea edo telefono kontaktua, denda fisikora hurbildu ezin den edo pertsonalki aukera ez duen bezero bati zuzendutako kanala.

